

Stefan Winter-en *Poem of a Cell* ikuskizun berritzaileak inauguratuko du uztailaren 20an 52. Heineken Jazzaldia

Obra osoaren mundu mailako estreinaldia da. 60 musikari baino gehiagok joko dute zuzenean filma proiektatzen den bitartean

Charles Lloydek jasoko du 2017ko Donostiako Jazzaldia Saria

52. Heineken Jazzaldia uztailaren 20an inauguratuko da, Zurriolako hondartzan, 22:30ean, *Poem of a Cell* obraren mundu mailako estreinaldiarekin. Irudi- eta soinu-ikuskizun berebiziko hori Stefan Winter-en produkzio handinahi bat da. Ospetsua da Winter soinu-artista gisa eta Winter & Winter zigiluaren bitartez ekoitzi dituen jazzeko disko zoragarriengatik.

Poem of a Cell: Triptych of Love and Ecstasy aldi berean hiru pantailatan proiektatzen diren edertasun harrigarri eta irudimentsuko hiru filmez osatutako ikuskizuna da. Proiektzioa 60 musikari baino gehiagoren zuzeneko musikarekin osatzen da. Guztiak jazzetik, musika klasikotik, etnikotik eta koraletik datozen artista nabarmenak dira.

Hor izango dira, adibidez, Uri Caine, Mark Helias, Clarence Penn, Barbara Walker, Joachim Badenhorst, Fumio Yasuda, Rajab Suleiman, Saada Nassor, Fanny Winter, Kettwiger Bach Ensemble eta Forma Antiqua.

Uztailaren 20an Zurriolako hondartzan 22:30ean eskainiko den *Poem of a Cell* ikuskizuna obra osoaren mundu mailako estreinaldia izango da. Filma uztailaren 16an proiektatuko da Zanzibarren, huraxe baita filmatu den tokietako bat, baina ez dute zuzeneko musikarik izango.

Ikuskizun honetan, mundu guztiko 250 musikari inguruk interpretaturiko lanak entzungo dira, hala grabazioetan nola zuzenean: jazzeko izen gailenak –Uri Caine, Clarence Penn, Mark Helias, Barbara Walker, James Genus, Nguyễn Lê edo Ben Perowsky–; talde klasikoak – Forma Antiqua, Exaudi Vocal Ensemble, Kettwigger Bach Ensemble edo St. Joseph katedraleko Santa Zezilia abesbatza–; Zanzibarko zenbait musikari –Mtendi Maulid Ensemble, Saada Nassor eta Raab Suleiman– edota sailkatu ezin daitezkeen abangoardia musikaleko beste hainbat sortzaile: Joachim Badenhorst, Alan Bern, Ichiro Hosoya, Fabio Nieder, Cologne Percussion Quartet, Ernst Reijseger eta Fumio Yasuda.

Poem of a Cell 138 minutu irauten duen soinu eta irudi sekuentzia bat da eta hiru amodio olerki sentsualetan oinarritua dago: hebrearren bibliako Tanakh liburuko *Kantarik Ederrena*; Matilde Magdeburgokoa zistertar lekaidearen *Jainkotasunari darion argia*; eta Basorako Rabi'a andrazko sufiaren *Jainkozkoarekin bat*. Hiru poemak Judaismoa, Kristautasuna eta Islama senidetzen dituen –eta beren arteko diferentzia guztiak gainditzten dituen– gai batean oinarrituak daude: maitasuna, estasia eta, azken finean, jainkozko maitasunarekin bat egitea.

Distira handiko edizioa

Itxura guztia dauka 52. Heineken Jazzaldia bere historia luzeko edizio distiratsuena eta ikusgarriena izango dela. *Poem of a Cell* lanaren mundu mailako estreinaldiaz gainera, Jazzaldiak aurrez jada iragarritako hainbat artista handiren joaldiak eskainiko ditu: Bryan Ferry, The Pretenders, Herbie Hancock, Wayne Shorter, Kamasi Washington, Gregory Porter, Macy Gray, Hiromi, Abdullah Ibrahim...

100 emanaldi baino gehiagoren egoitza izango diren 17 agertokitan garatuko da Jazzaldia; emanaldien hirutatik bi baino gehiago doan izango dira.

52. Heineken Jazzaldian, gainera, protagonismo handia izango dute tokiko musikariek, 30 emanalditik gora izango baitituzte.

Charles Lloyd, 2017ko Donostiako Jazzaldia Saria

52. Heineken Jazzaldiak Charles Lloyd saxofoi-jotzaile handiari emango dio aurtengo Donostiako Jazzaldia Saria. Lloydek bere laukote berriaren buruan joko du, uztailaren 22an, Trinitate plazan.

Charles Lloyd egiazko elezahar bat da musikaren munduan eta erraza luke jada egina duen ibilbidearekin atsedean hartzea, baina iraganari begira egotea ez zaio inoiz interesatu. Haren kontzertuak eta grabazioak edertasunez, dotoreziaz, emozioz eta grinaz beterik daude. Haren musika ez da entretenimendu soil bat, edertasunaren adierazpen ahaltsu eta lohigabea baizik.

Artistak adierazi dio antolakuntzari pozarren jasoko duela sari hori, ezaguna baitu. 2002an, izan ere, lekuko izan zen Elvin Jonesi Donostiako Jazzaldia Saria entregatu zitzaionean. Charles Lloydek agertokia partekatu zuen egun hartan Elvin Jonesekin eta sari-emate ekitaldira joan zen, jada desagertua den bateria mitikoari zion atxikipen eta adiskidetasun mina erakusten zuela.

Charles Lloyd Memphisen (Tennessee) jaio zen 1938ko martxoaren 15ean. New Orleansen bezala, Memphisek ere Mississippi ibaiari loturiko kultura aberatsa du, blues, gospel eta jazz musikaz blaitutako ondare oparoa.

1965ean bere laukote propioa osatu zuen. Talde distiratsu haren bidez aurkeztu zituen Keith Jarrett (pianoa), Jack DeJohnette (bateria) eta Cecil McBee (baxua) musikari talentutsuak. Lloydek argitaratutako *Forest Flower: Live at Monterrey* (1966) diskoa izan zen milioi bat kopiatik gora saldu zituen jazzeko lehen grabazioetako bat. Gainera, haren laukotea izan zen San Frantziskoko Fillmore Auditorio entzutetsuan jo zuen lehenengo jazzeko taldea eta kartela partekatu zuen Jimi Hendrix, Janis Joplin, Cream, The Grateful Dead eta Jefferson Airplanerekin.

1967an, Charles Lloyd "Jazzeko Urteko Artista" bozkatu zuen *DownBeat* aldizkari prestigiotsuak.

Denboraldi bat erretiratuta egon ondoren, 1981ean itzuli zen Michel Petrucciani frantses pianista bikaina lagun zuela. Ordutik hona, munduan zehar han eta hemen emanaldiak eskaintzeaz gainera, hainbat disko grabatu ditu bere laukotearekin.

Roskow artistaren irudi grafikoa

Roskow artista plastikoak –bera da 52. Heineken Jazzaldiko kartelaren egilea– hainbat garapen grafiko egin ditu, kartelaren motibotik abiatuta, Jazzaldiko aktibitateak irudiztatzeko.

Jazzaldia kaleetan iragarriko duten banderatxoak dira, adibidez, garapen horietako bat. Aurtengo edizioko kamisetak ere Roskowren diseinuak dira. Eta Heineken Jazzaldiak inprimatze-kalitate handiko 10 laminako joko bat argitaratuko du non Roskowk bere karteletik abiatuta egin dituen marrazki jostagarriak jasoko diren.

Heinekenek beste bi urterako berri du bere babesa

Heinekenek hurrengo bi urteetarako (2018 eta 2019) berri du Heineken Jazzaldiaren babesa, horrela, hogeitun urtetik gora irautean duen lankidetzaren emankorrari jarraipena emanaz.

Babes-hitzarmena Eneko Goia Donostiako alkateak eta Pablo Mazo Heineken Espainiako erakunde-harremanetarako zuzendariak sinatu dute, gaur, ekainak 26, Victoria Eugenia Antzokian gauzatu den Heineken Jazzaldiaren aurkezpen-ekitaldian.

Heineken Jazzaldia Spotify zerrenda ofiziala

Heineken Jazzaldia 2017 playlist-ean (<https://play.spotify.com/user/mmartin2009/playlist/7uVIwKyrAYQ8KgCjM2O7ZH>) entzun dezakezue jaialdian parte hartuko duten artista guztien musika. Zerrenda hori erabilgarria da hedabideentzat, bereziki ikus-entzunezkoentzat, baina baita publiko osoarentzat ere.

Sarrera salmenta

52 Heineken Jazzaldirako sarrerak hurrengo webguneetan eros ditzakezue: www.heinekenjazzaldia.eus eta www.donostiakultura.eus/sarrerak